a m a r a  b e r r i k o  e g u n k a r i a

38. zb

urtarrilak 29 osteguna

# ABE


AnderLaura,Iosu eta Uxue

www.amaraberri.org    amaraberrimor.abe@gmail.com

## DENBORALEA



Denboralea dela eta,zuhaitz bat erori da tren bidean, eta ondorioz, tren zerbitzu gabe daude Zarautz eta Zumaia artean, bi norazkoetan. Zerbitzua autobuses ematen ari da Euskotren kanpainia Zumaiatik Donostiara eta Zarautzetik Bilbora. Zerbitzua gaur goizerako prest egongo da.

## EIBAR FUTBOL TALDEA

Jaime Barriusok dimisioa aurkeztu du. Eibarreko presidentea izateari utzi dio eta bere kargua gaur arte presidenteordea izan den Alex Aranzabalek hartuko du, Klubak ezagutzera eman duen inzormazioak adierazten duen bezala.



## e d i t o r i a l a

Kaixo lagunok gu Ander,Laura,Iosu eta Uxue gara A.B.E hau egin dugu. Zuen gustoko gauzak daude ondo pasa irakurtzen.

## a u r k i b i d e a

1.- PORTADA: DENBORALEA ETA EIBAR FUTBOL TALDEA
2.- ELKARRIZKETA: IKER A.
3.- SASKI NASKI: EL RINOCERONTE
4.- LUMAREN KILIMA: DESKRIBAPEN MAJIKOA
5.- GU ERE IDAZLE:PERTSONAI MISTERIOTSUA.
6.- ENTRETENIGARRIAK:WORD PUZZLES



# gaur eta hemen

Astelehenean Santa Ageda egunerako entsaioak egiten hasi ginen, asteazkenean aterako garelako 3garren zikloa koplak kantatzera eta gela bakoitzeko lau ikasle joango dira goizean Matiara eta zaharrei abestiak kantatko dizkiete goizean.



# ELKARRIZKETA

## IKERREKIN HIZKETAN

1.-Zein da zure gelako neskarik gustokoena?
-Ez daukat neska gogokoena.
2.-Zein da zure janaririk gustokoena?
-Kaneloiak.
3.-Zein da zure kirolik gustokoena?
-Futbola eta saskibaloia.
4.-Zein klase gustatzen zaizu gehien?
-Soinketa eta matematika.
5.-Sandra ondo erortzen zaizu?
-Bai.
6.-Zein da zure musika talderik gustokoena?
-ken7.
7.-Zer egiten dezu denbora librean?
-Jolastu.
8.-Zein da zure kolorerik gustokoena?
-Gorria eta Laranja.

IKER ALTOLAGIRRE



# EL RINOCERONTE

1.-La cabeza del rinoceronte es grande y alargada.
2.-Son magníficos su oído y su olfato.
3.-El rinoceronte dirige hacia el sonido las orejas y son como tubos.
4.-Oye los sonidos desde kilómetros.
5.-En Africa,el elefante es el único animal mas grande que el.
6.-Con el cuerpo impone mucho respeto.
7.-El cuerno, a veces tiene unas formas caprichosas.
8.-Ademas,el cuerno varia.
9.-El cuerno le sirve para defenderse de los depredadores.
10.-Los cuernos del rinoceronte negro,uno mide 60 cm
y el otro 50 cm.
11.-El cuerno del rinoceronte indio mide 60 cm
12.-Los rinocerontes,por su aspecto natural se parecen a ciertos di-
nosaurios
13.-Los rinocerontes son muy grandes y muy pesados.
14.-El mayor de ellos es el rinoceronte blanco y mide 4,5m y pesa
2.300 kg.
15.-Los ojos del rinoceronte son pequeños y no ven mucho.



EGILEA:
XABIER RUIZ DE LOIZAGA



# Deskribapen majikoa

Ni,beltz koloreko objetu txiki bat naiz,"decathlonen "bizi nintzen ,beste objetu askorekin batera.Nik,hiru urte neramatzan bizitza aspergarri hartan.

Egun zoragarri batean,Maiatzaren 21garren egunean,ordubiak eta hamairu-tan,12urte inguruko neska batek,ni erosi,eta bere etxera eraman ninduen.Huraxe izan zen nire bizitzako unerik zoriontsuena.

Udara iritsi zen,eta Larak,nire jabeak,Australiara eraman ninduen,bere familiarekin.Oso zoriontsu nengoen,beharrezkoa sentitzen baitnintzen.

Hegazkinera sartu orduko, aulki erraldoi batean utzi nindutela somatu nuen.Oso aspertuta nengoen,hegazkinean hainbeste ordu igarotzeagatik.Bat-batean,haize bolada izugarria sentitu nuen.Oso ikaratua nengoen,eta oso hoztuta erebai.Hegazkinetik lurrerantz erori nintzen,txinatar baten eskuetan.

Zeruan ibiltzeagatik lur jota nengoen.Han eguzki asko zegoen,eta laster berotu nintzen.Txinatarrak oso ondo zaintzen ninduen,eta ni,bera,nire jabe berria izatearekin oso pozik nengoen.Gero,motxila baten barruan sartu ninduen.Urdai azpikozko bokadilo bat ageri zen bertan.Nik oso ondo pasatzen nuen berarekin,nahiz eta bere hizkuntza ez ulertu.

Geroago aulki batean utzi ninduen ahaztuta,bakar-bakarrik horrezkero beste pertsona baten zain geratu nintzen gau eta egun.

Hurrengo goizean,gizon zakar bat urbildu zen nigana.Oso aurpegi txarrez begiratzen zidan behin eta berriro.Azkenik,ni hartu eta ibaira bota ninduen.Huraxe izan zen nire bizitzako azken unea.Igeri egiten jakin izan banu,ez nintzatekeen hain azkar hilko.

LEIRE LARRAZA



# GU ERE IDAZLE

## PERTSONAI MISTERIOTSUA

NIK DESKRIBATUKO DUDAN PERTSONA IPUINETAKO PERTSONAIA DA. EZ DA OSO ALTUA BAINA POTOLOA DA.AURPEGI TXIKIA DU.ILE GORRIXKA ETA EZ OSO LUZEA.KOPETA ERTAINA DAUKA.BEGI URDINAK DITU,SUDUR HANDIA DU.BELARRI TXIKIAK ETA IRRIBARRE LUZEA DAUKA.AZAL ZURIA DU,ESKU POTOLOAK DITU.OIN TXIKIAK DITU.GALTZAK URDINAK ETA TXURIAK DITU.EZ DAUKA KAMISETARIK.NORMALEAN ONDO PORTATZEN DA BAINA HASERRETZEN DENEAN OSO BURU GOGORRA DA.BERE ZALETASUNA BASURDEAK EHIZATZEA DA.LAGUN BAT DAUKA TXIKITXOA ETA ARGALA.ERROMATARREI ASTINTZEA DA.

EGILEA:NATALIA VEGA



# E G U R A L D I A

MOMENTU HONETAKO TENPERATURA:12º

ATZOKO TENPERATURARIK BEROENA:20º

GAU HONETAKO TENPERATURARIK HOTZENA:10º



ZERUA:OSTARTEAK

LURRA:BUSTIA

HAIZE MOTA:HAIZESKA

HAIZEAREN NORABIDEA:MENDEBALDETIK

OSTARTEAK

EURI MOTA:EZ DU EURIA EGITEN

Esaera zaharra:URTE EURITSUA URTE OGITSU

entretenigarriak



abe hitza aurkitu

portadakoak ez du balio

# WORD PUZZLES

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | Q | U | A | S | H | A | H | S | R |
| K | I | T | T | E | N | U | O | S | U |
| I | M | L | M | R | E | I | C | N | G |
| I | L | Y | I | Z | K | Q | K | M | B |
| N | E | F | I | N | T | S | E | M | Y |
| G | B | A | F | O | G | H | Y | N | D |
| B | A | D | M | I | N | T | O | N | E |
| K | E | N | A | O | S | P | E | A | R |















EGILEA:MIREN LAZKANO